

# BERTSOLARIAK

## Txapelketari Buruzko iritzi Batzuek Mai-buruko baten oarpenak

## Doñuari Buruz

Lekuona'tar Juan Mari

J. SAN MARTIN

Bein baino geiagotan esan didate, bertso saloetan, mai-burukoak eta erriak ez ditugula iritzi berdiñak. Ori bedori da orain Z. ARGIA-ren zuzendaritzak ere galdetzen didana. Baiña nere iritzian, galdere oien premiarik ezan izango asteakari onek bere zergak garaitz tajura balitu. Orduan P. Egiagurenen idazkirik ezuzen argitaratuko, edo ondoren joan ziran erantzunak ere eskubide berdiñak izango zituzten egiazen biderako. Baiña, joanak-joan, Orain alperrikakoa da auzi zaarleri eragitzea.

Mai-burukoak, guzien iritziak entzuten eta ausnartzen dakizkigu, beti gaude adi baliozko kontsejuak aintzat artu ta tajutzeko. Baiña, zoritxarrez, baliozko oso gutxi jasotzen degu. Erriaren bertan milla eratuiko iritzi desberdiñak dira. Erria eztago erriarekin. Batzuk eta besteak, era askotariko ustekak dituzte. Onekin ez det esan nai mai-burukoak bat gatzoenik, ez. Gure artean ere, ez gera gustiok aburu berdiñekoak. Baiña erriko jenderik geienagandik gauza batek berezten gaitu: guk, gutxienez, bertsoingizaren legerik premiazkoenak ezagutzen ditugu; eta errik geienak, ez.

Bertsolaritza, guzien gain, arte bat da. Artea dan aldetik ezta lege esan baituzen barnean jartzeko gauza, jakina. Baiña bai estetika ta etorkizunaren legen barnean, egiak eskatzen duten neurri, puntu, oinera eta inspirazioaren barnean. Ta, entzule asko konturataren ezitaren legeak dira oiek. Amaika uste okerreko utzi izan ditut, neronek, agoa bete agiñekin, auzi oieri buruzko tentelkeriren bat entzun dedanean. Adibidez, bere iritzian, Uribe Beredija baiño obeto egon zala, onegaitik eta aregaitik, nazia diferentzi gutxi izan. Olakoari erantzuten bazaino: bai, bien arteko diferentziak oso txikiak ziren, gaiak berditzuz eraman dituzte, bear bada, zotz egite-erakoan ere, Uriak Beredijak baiño suerte ohea izan du, edo berakin reman ari zena eztan bere mailakoa ta ori ere aintzat izan bear zala; baiña, estukuak ziranek, diferentzi gutxi egoenez, orduan aztertu genitula potoak, neurrien utsegi-teak, bertsoen egienera nola eraman duten eta argi ikusi genduela Beredijak aurrerago jartzeko merezi zuela bertsolari ofizioa obeto betetzzen zuelako, poto gutxiago zuelako, bertsoak obeto osotuk zirelako, eginaren gauzak sustarretik artuz landuz joanaz bukaera elburutzen zuelako gaita batasun batean birbiliduz. Ta, orduan, errazoi guzien jabe zala uste zuan erriarrak, zu erantzuten du: «AI, bueno, Orrek kontu guztiok goguan izatera, orrela izango deku». Zenbat eta zenbat aldiz gertatu zaidan au.

Gauza guzietan bezela, bateдон- batek aburu ona izango bada, lenengo eginkizuna da, ikasi. Ala ere, geien-geienetan mai-burukoak eta erria bat etortzen dira; ta orrela ezteanean ezta mai-burukoan erruz-geienetan gertatu oi dan bezela nai det—, erriaren ez jakiniez batzik. Epaimeiak ere oker erabagi lezake, baiña erriak mailzago, arstian jari ditudan errozeogaitik.

Saioak, eretan errez bereizten dira ta orduan ezta izaten prolemarik, baiña geienetan estukua izaten da, batez ere probintziatoko txapelketa nagusietan eta Euskalerrikoan. Orduan, gure larritasunak ezitira izaten iñori opa izatekoak, Bertsolari batek baiño geiagok beren lana ondo betetzzen dutenean gaitz, eraz, ofizioz... Orduan kontuak. Mai-burukoak ere nekez bat etorri ginduz-

ke. Orduan dator geron arteko al-kartu ezina. Alkartu ezin, baiña erabagia artu bear... saioa luzatu... ordua aurrera... erabagi bear! Orduan jokatzen dira artearen barmetikako misteriozko sentipenen bereizkuntzak. Arte erak bakoitzaren gusotak dituzte lege. Ta, bertsolari bakoitzak bere joera bereziak ditue-nez, batzuek batan aldekoak gera eta besteak bestearen aldekoak. Zein eta Velázquez zaleak eta Gre-

ezagutu ditugu txapel beren aburuetan. Gainera, atek idikiak dauz-kagu epaikitzaera sartu nai duenontzat. Aituen premian gera. Bai-ta aikia utzi bear badugu ere gertu gaude obeeru tokia uzteko. Ta, nor-bait ausartzen ez bada, besteak proposaturik etorri dedilla Euskaltzain-dira. Ongi-etorria emango ditugu. Pozik gainera.

Gure jokabidea ezta gaberdi-ko aintzaren ezitula. Bertsolariak berek



Azaroa'ren 17-an Elbarren, Manuel Lasarteren omenezko sayora bil-du ziran bertsolaria andana. Eskerretik eskubira: Mugartegi, Aspil-laga, Lizaso, Ustapide, Basarri, Lasaie, Lazcano, Egileor eta Agirre. (O)Janguren-en argaskia.)

ko zaleak diran bezela. Bietan dago errozia, baiña nere botoa Greko-ren alde dijoa, zintzoki, egiazki, bai errozioz eta bai biotzez. Zergaitik? Emen lerro gutxitan adierazi ezin nintekian barmetikako milla erro-zoigaitik. Ori buruz oraindik idaz-tziko det asteakari onen orrialde-tan. Baldin orrarako baimenik ematen badidate.

Baiña, ara: nere botoa Greko-ren alde joanaren, Velázquez zaleak geiagot zirelarik, aiek irabazi dute. Gaurkoz, txapela, Velázquez-entzat izango da, baiña nere kolkorako ondo dakit Velázquez ezfala Greko baiño geiagot. Bi eratakoak izanik, biak dira buru. Suertea alde batera joan da, bestera joan zitakean be-zela. Mai-buruko batzuk amor eman degu. Ori da erriak berak ez alka-reen artean egin bear duana, amor eman, bere lera ta keriak alde ba-tera utziaz.

Lege estuago batzuetan finkatu ezin danez, gaurkoz eztago beste bi-derik.

Maiz entzun degu, mai-buruko, bertsolariak egin bear zukeela ere. Egia esan, beti edo geienetan izan da epaillien artean bertsolariaren bat, ta ondoko dakigu beren iri-tziak noraino eiltzen diran. Ez pen-tsa zurrenak diranik, jakintsutzar sartu izan ditugun bat baiño geiagot

ere iritzi berdiñak ez dituzten ar-tean epaikiari egin bearra. Eta, bert-solariak beren artean uste berdiñ-ak ez badituzte, norituk dira ja-kitun? Izanik ezut eman nai, bai-ña erriarantzat nor dan onena era-bagitzea oso erroza da. Ori baiño ez balitz. Gusto ori egitea oso erre-za litzake. Baiña gure erroziak bes-terik dira. Bertsolariak ere aintzat artu bear ditugu neurri batean. Bai-ña guzien gain, gaieri jartzen dien mamia, bertsoa biribiltzeko era, po-toak, neurriak eta abar. Naiz eta azken auk bertsolari onenak ondo eramani beti azaltzen da desber-dintasuna.

Oharri auk mugatzeko, epailari on batek, bearezkoak ditu Lekuona-ren Literatura oral euskérica, Lafitte-ren Koblakurien legea, eta milla bertso zar eta berri zerbait ezagutu ondoren, urteetan belarrik erne erabilli bertsolari askoren ar-tean—askoren artean esan der eta ez bi edo iruren artean, itsutasunik ez sortzeko—, beren funtsezko ere-kin jabetzeko. Erriak ere ori egin-gu balu, Xalbador aundiak ere ar-re-ra ohea izango luke gure Gipuz-koan. Ontaz ere gauza asko esango nituke. Baiña eskatu didaten neur-ri baiño luzatu naiz ta bertsolaria banintz mai-burukoan aurrean zen-bait puntu galduak nituan.

Zaharretakoak gogoa dute txapelketa ura: "Victoria Eugenia 1935". Ba-da orduko gertakizun gogungarria, musika dala ta Txirrita-ren kidekoak musika ber-dintsua zerabilkiten jai artan, do-foretasuna galduta ta kantuzko-ta-ju eskarean emana Asten da La purd'ho Martin... Aingeruzkoa are doñua! Seaska kanta: "Lo-lo, ene maitea" bezela. Gaur ere orai-garri da entzunleen ordako zirra-ra.

Lengo Igaandean ere berdin ker-tatu da Tolosa'n, Lazkao-txiki'k, Josafat'eko zelatan, emen asarrez-ko zuan andreari an ikustean zer esango liokean aditzaera emateko, orlxen egin zuan: gisazko musika artu, Basarri'k sortutako sortziko negartia. Benetakoa entzunleen atsegina. Izan ere kantuzko lan-eean musika garrantziko da. Ta trebetasun aundia azaltzen du ber-tso lanerako, galari dagokion do-ñua ondo aukeratzen duanak.

Lehenagoko bertsolariak, bat-ba-teko jardunetan, norik beren do-ñuak zituzten. Gutxi, ori bai. Kan-ta-papetak jartzerakoan berri, aberastasun aundisgao ageri oi da. Era askotakoak daude. Nik ez-da-kiñ zenbat musika-bira ditugun gu-re bertso bildumetan. Heus, adibi-ber, Makazaga'ren bilduma. Gela-tsuenak donu ez-berdinean. Eta nolakoak batzuek!

Gaurkoen jokaera lege beretsue-tan dabil; baiña gaurkotasanak eskatzen duan eran. Bidaso'z omu-tzakoak artu ditugu ibaloz gorako ahalre zar asko. Gaur musika apain ugari entzuten da. Beste bertsolari-ziko zenbait aletetan bezela, pran-tes-musika emen txerlatzen ere Basarri ban da gidari aparta. Ga-nera berriak sortzen ere egin du proba, lehen ahipatu defan donu negartiarekin. Baiña ere ezagutzen dit Lazkao-txiki'k sortutako beste melodi bat, triste antzeko etorri aldietan erabilizkeoa.

Geroari begira zer pentsa? Gure gerozko noraino ta nolako gaitz-kean ezin aurrera-juzgu aundirik eman. Beraz ez-dago urrutiegia be-giratz erik; ez eta aldatketa sako-netan amets egiterik ere. Bakar-bakarrik, lehendik gaurera, (eus-keraz kanta berrietan arastakoa gabiltz askotan) egin lukean sal-toa egin. Bilintz zanak erakusten

digu nundik-norako zuzena, bide eroso. Aren bertso-doñuak garai artan Donostia'n entzun oi ziran kale-kanta edo abesti-artien melodiak, zertxu bat eratuak, ote di-ratakoan nago. Ez gaude eskual-musika bilduma jatorretan, aruntetan. Baiña gan galaz ezezik ahalre ere ba-dute berri-giroa. Ta su da gauza bearezkoak: bertso-abeftian gaurkotasuna. Bilintzek egin zuzana: erromantiku eresiak erabilli gisa ontako sentipenen-tzat.

¿Nola egin, ordea, musika gau-zeftan gaur dagoan nasipilarekin? Ez da beste mundukoa lortu deza-kegun aurrerapena. Baiña, besteak beste, ba-daude bi bide, altatu nai nituzkeanak; gaurko melodi onak erabiltzea ta gure musikagiltzeri melodi berriak, oraingo erara, egin arazteak. Neronek badut zinma-musika batekin paperetan emana. "Zergaitik, aifona" benekoa. Ber-tsoak jartzeko ba-du edertasuna; eta kanturako ban lezake, ez eta-baldarako baiña bai bakarrik ahesten danean, alako zertxu be-rezela. Gure eresleretik egiliktoetan ahipa dezala Olasola'ren bat. Bere "Oleska'tri zerra'n" entzuten da "Onitza"ri erromantza ego-klia, oin-neurritz sortziko nagusian. Nik uste melodi zoragarria litz-keala bertsolariarentzat. ¿Eta zerga-tik ez aberastu bide onetatik kan-tuzko soroa? Entzun dut, baiña ere, dizka berriko "Fakaren urzoa", rekin bertso jardun ederra Mitxel-ena'ren abotik. Auzen da berritze-ko bidea: kanta berriak sortu ta, entzunaren entzuzen, zabalkun-dea egitea bertsolarien artean.

Ba-dator, berriro, Euskalerriko bertsolari txapelketa. Musika alde-tik zu da esan nai nukena. Ondo aukeratu gaita bakoitzari dago-klion doñua. Lan guztiak, umore-dunak eta negartiak, e-litetzko zerg-iz emen, jardunaldi berean, eresi berarekin. Beraz gain aldatzera-koan musika ere alda. Ta gauza jakina ba-ditridi ere, askok ez du-te jakiten, galak askatasuna, gra-zia, ta zorrotasuna eskatzen duan-eean, ohe dala bertso laburra edo puntu motza; ta galak arnasa, do-foretasuna ta biotzondoa eska-tzeaz, berri, mesedegari bertso luze ta oparoa. Ta batez ere, gait-aren sentipenak duan kolore bear du musikak ere; gal tristetak mu-sika tristea, alaiak alafia. Au egin da dotor musikaren murraria: so-rrera ona eman bertsoari sozko furturria; ta sarrera ohea entzun-leen biotzean.

**Oinetakoak EL SIGLO**

Azkenengo egiturak. — Emakume, gizakume ta aurretzant

Avda. de España, 20 San Marcial, 30

Urrutizkifna 19.048 DONOSTIA Urrutizkifna 11.672

ORDULARI ZILAR BITXITEGI

**ALDANONDO'K**

Guzioiri Pazko-Eguberri zoriontsuak opa ditzakizue.

Sarriegue Enparantza, 10

Urrutizkifna: 16467

**DONOSTIA'N**

**VIDRIERA VASCA**

Imaz Anaiak eta Iridoy

OFIZINAK (LANDOLAK): Av. de España, 18-4.º - Urrutizk.º 10262

Despatxoak (SALMENTA): Fuenterrabia, 5, azpizetan.

Urrutizkifna 16444 ta 16592

Gordailua ta lantegia: Arroca kalean - Urrutizkifna 15540

**DONOSTIA**